

## SECCION AMENA



## KAFIAN



Aizak, infernukua:  
 ¿aitu nai ez aldeak?  
 esan nazak aguro  
 lotsarikan badek,  
 ¿nork agindu ta nere  
 kafia artu dek?  
 —Garbi esango diyot,  
 eztit esan bestek  
 baizik gure kaleko  
 Pello Burukaltek.  
 —¿Nere kafia zala  
 len aditu eztek?  
 Baldiñ maldiziyuak  
 indarrrik balikek,  
 gulincho bat gogorra

berielu ukek;  
 eta koskor ura aiñ  
 aundiya biaukek  
 zintzurraren erdiyan:  
 gañera nai nikek  
 ¿zer nai! ojala oraiñ  
 bertan baukakek.  
 ¿Iri ori egingo  
 baldiñ balitzaikek  
 chit asko gustatuko  
 noski, ez litzaikek.  
 ¿Oraiñ aziyu orrek  
 zer merezi likek?...  
 —Habanako puru bat  
 emango baliket.

V. IRAOLA.

